

www.unescoetxea.org

2011

TXOSTENA

UNESCO ETXEA

RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA • MIKEL MANCISIDOR ZUZENDARIA



Mikel Mancisidor eta Ruper Ormaza Gretchen Kalonji-rekin, UNESCOren Natura Zientzietako zuzendariorde nagusia, 2012ko Maiatzan Bilboko UNESCO Etxeko egoitzan egindako bisitan.

Aurten ere, eta jada laugarren urtez, JARDUEREN URTEKO MEMORIAREN aurkezpen-gutun hau bizi dugun krisi gogorra aipatuz hasi behar dugu.

Gure antzeko erakunde askok langile-kopurua murriztu behar izan dute, edota programak bertan behera utzi. UNESCO Etxeak, oraingoz, egoerari eustea lortu du, kontrol- eta aurreikuspen-neurri gogorrak hartu ondoren. Hala ere, jabetzen gara funtzionatzeko, lan egiteko eta fondoak lortzeko orain arte baliatu diren moduak, gure antzeko erakundeetan oso ohikoak direnak, zaharkituta geratu direla, jada ez dutela balio, jada ez dutela funtzionatzen.

Gure MISIOA zintzoki betetzen baina, aldi berean, antolatze eta finantziatze modu berriak bilatzen ikasi behar dugu. Guretzat ez da erraza, baina badakigu aldatzea beste biderik ez dagoela, bidean geratuko ez bagara.

Eta ez dugu bidean geratu nahi, baina ez iraute hutsa dugulako helburu, baizik eta uste osoa dugulako UNESCO Etxean egiten diren lanak gaur egun inoiz baino garrantzitsuagoak eta baliagarriak direla gure gizartearentzat.

Krisi honetatik ikasi beharko genuke gure arazoak orokorrak direla, denok denon beharra dugula, giza garapenaren ideiek denontzat izan behar dutela baliagarri: Hegoaldeko herrialdeentzat eta Iparraldekoentzat. Jada ikasita

izan beharko genuke ezin direla bereizi eskubideak eta erantzukizunak, parte-hartzea eta herritarron baterako erantzukizuna; hau da, batera doazela. Ohartu beharko ginatke hartu beharreko irtenbideak ez direla tokiko esparrukoak, ez eta Europa mailakoak ere, baizik eta mundu mailakoak direla.

Ez dakigu zein den garai hauetako arazo zailei eman beharreko erantzun egokia... Are gehiago, ez gara fidatzen arazo ugari eta konplexuak konpontzeko erantzun sinpleak dituztela dioten horietaz. Baina, hori bai, ziur gaude, krisi honi irtenbidea emango bazaio, ez dugula ezagutu genuen hura errepikatu behar; ezin gara abiatu ginen lekura itzuli.

Aitzitik, etorkizuneko indarrak gobernantza global hobeto eta zabalago batek ekarriko ditu, pertsonak merkatuak baino garrantzitsuagoak izan daitezten, eta berrikuntza eta ekonomiaren indarrak herri guztien giza garapen iraunkorren zerbizura egon daitezten. Eta kultura, hezkuntza eta zientzia guztionak eta guztiontzat izan daitezten.

Horregatik uste dugu, hain zuzen, UNESCOren sorrerako helburua eta UNESCO Etxearen lana, gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoak direla. Hori dela eta, zeuru burua aberastu eta enpresa honekin bat egiteko deia luzatzen dizugu: bazkide eginez (bai, behar zaitugul), gure ekintzetan parte hartuz, sare sozialetan gure jarraitzaile izanez edota guri lagun berriak edo kolaboratzaileak aurkeztuz.

Erredakzio: UNESCO Etxeko lan-taldea
Produktio editoriala: SRB, S.L.
Edizioa: 2012ko ekaina
Editatzen du: UNESCO Etxea
Isotzaki Atea – Bizikidetasun enparantza
Uribitate pasealekua 12, 2. lokala
48001 Bilbao
Tfna.: 94 427 64 32 Faxa: 94 427 25 48
Zapateria kalea 8.
01001 Gasteiz
Tfna.: 945 26 41 96
info@unescoetxea.org



UNESCO Etxea
www.unescoetxea.org



-en gaude




Klororik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan eta birziklagarrian inprimatua.
 1 zuhaitz-mozketa, 415 litro ur-erabilpena, 355 Kilobatio/orduako argi-kontsumoa eta 87 CO₂ kilo-izurtzea

NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura Publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 124 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXeko ORGANIGRAMA



* Gainera, eusko Jauritzarekin kolaborazioan 16 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan.

EGINKIZUNA ETA IKUSPEGIA

EGINKIZUNA

UNESCOREN Konstituzioko agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOREN sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBErekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.



SARE ETA ALIANTZAK

UNESCOREKIN eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOrekiko Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea.
- UNESCOrekin elkartutako eskolen sarearen (PEA Sarea) autonomiaerkeidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Milurteko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkaritza Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (PNUD).

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GKE-en Konferentzia (CONGO).
- Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroa (UBUNTU).
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- CONGDE-Espainiako GKEen Koordinakundea (uraren eta klima aldaketaren taldeak).
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarteen Federazioa.

- Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokia.
- Unescocat-Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax institutua.
- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Global Campaign for Climate Action.
- End Water Poverty Coalition.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUKO UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUKO UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea (eragin politikoa taldea).
- Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarteen. Foroa. (lehendakariordetza).
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- Erromako Klubeko Atal Espainiarraren Euskal Taldea.
- Euskaltzaindia.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Garapen Bidean.
- Amalur Fundazioa.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- San Nicolás Arraun Taldea. Portugalete.
- Foro Erlijioso Herritarra
- Karpin Abentura.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.

SARE ETA ALIANTZAK

UNESCO BEKEN PROGRAMA

- 1997 – 2011
- 152 PERTSONA
- 43 HERRIALDE

UNESCO Bekak kontinenteen arabera

- AMERIKA 79
- ASIA 39
- AFRIKA 29
- OZEANIA 5
- GUZTIRA 152

UNESCO Bekak sexuaren arabera

- EMAKUMEAK 118
- GIZONAK 34
- GUZTIRA 152

2011EKO ARGITALPENAK

Catarata argitaletxeko 'Ensayos UNESCO Etxea' bilduman:
www.catarata.org web gunean eskuragarriak

- Claves para entender los nuevos derechos humanos.

Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentuen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak:
www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- Comunicar la sostenibilidad. Guía para periodistas.

- Giza Garapenari buruzko Txostena 2011. Iraunkortasuna eta ekitatea: Etorbizun hobe guztiontzat.
- Turismoa, kultura eta garapen iraunkorra.

Berezko argitalpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- Biosfera Erreserbei loturiko UNESCO Katedrak.
- Derechos culturales. Documentos básicos de Naciones Unidas.
- Servicios de los ecosistemas y bienestar humano. La contribución de la Evaluación de los Ecosistemas del Milenio.

PROGRAMAK

Pertsona guztientzako giza garapen iraunkorra eta bake bidezkoa eta egonkorra lortuko bada, ezinbestekoa da giza eskubideak errespetatzea. Horiexek dira, hain zuzen, UNESCO Etxearen helburuak eguneroko jardunean. Hori dela eta, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzen dugu aintzat antolatzen eta bultzatzen ditugun programa eta ekimen guztietan.

UNESCO Etxeak 2011. urtean egin dituen jarduera guztien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

GARAPENERAKO URA



Uraren munduko eguna. Donostia, martxoak 22.

UNESCO Etxeak lanean jarraitzen du uraren eta giza garapenaren arloan sentsibilizatzen eta eragiten, betiere giza eskubideen eta genero-berdintasunaren ikuspegitik, eta batez ere politika publikoek eta sektore pribatuak ura eta saneamendua izateko giza eskubidea babesten izan dezaketzen zeregina bultzatuz.

Alde batetik, hainbat ikastaro eta mintegi antolatzen ditugu, nazioartean, estatuan eta erkidegoan, eta haietan parte hartzen dugu. Bestetik, nazioarteko hainbat plataforma eta kanpainatan esku hartzen dugu helburu hauek jomuga harturik: ura izateko eskubidea bete dadin lortzea eta uraren eta saneamenduaren krisi globalari amaiera ematea. Eta horretarako, arduradun politikoek, komunikabideen eta garapenerako elkarteek aurrera eragiten dugu.

Horren erakusle, Uraren Munduko Astearen mintegi bat antolatu genuen ACRA, UN-HABITAT eta erreferentziazko beste erakunde batzuekin elkarlanean. Biltzar hori urtero egiten da eta hitzordu funtsezkoa da nazioarte mailan uraren gaien. Mintegi horren asmoa zen Tanzanian, uraren hornidura publikoari begira bestelako ikuspegi bat ezartzea, giza eskubideetan eta komunitatearen parte-hartzean oinarritua.

Ura izateko giza eskubidearen aldeko artikulua argitaratu ditugu hainbat aldizkaritan, hala nola Bakearen, Armak kentzearen eta Askatasunaren aldeko Mugimenduaren (MPDL) 'Tiempo de paz' agerkarian, Uraren aldeko Aliantzaren 'Es Posible' aldizkarian eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak argitaratzen duen 'Ahotsa' agerkarian. Euskal gizarteak akuitatzeko eta sentsibilizatze asmoarekin, Uraren Munduko Eguna oroitzeko ekitaldiak ere antolatu genituen Donostiako Akuariumean, 'Noticias de Gipuzkoa' egunkariarekin batera. Hauxe izan zen 2011ko goiburua: 'Ura hirietarako: hirietako erronkari aurre eginez'.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

GARAPENERAKO KULTURA



ICOMOS Gesaltza-Añanan izan zen. Otsailak 11.

UNESCO Etxeak ahalegin handia egin du 2011. urtean giza garapenaren arloan zeharka kultura ere aintzat hartzeko, eta erakundearen lan-esparru guztiak hartu ditu horretarako oinarri.

Hainbat jardueratan lagundu du, hala nola Ikus-entzunezko Ondarearen Munduko Egunaren antolaketan, Ama-hizkuntzaren Nazioarteko Egunean eta Giza Garapenera buruzko Txostenen 20. Urteurrenean. Halaber, kulturaren arloko topaketa ugari ere hartu du parte, hala Espainian nola nazioartean, besteak beste 'Garapenerako kulturaren eta komunikazioaren arteko harremanak' mintegian edota 'Uruguako memoria eta identitatea' foroan.

Kultura eta garapenaren arloan nazioartean martxan den gogoeta-prozesuarekin ere bat egin du UNESCO Etxeak eta, helburu horri begira, 'Kultura eta Garapena. Bilakaera eta etorkizuneko aukerak' dokumentua itzuli eta argitaratu du ingelesez, 'Eskubide kulturalak. Nazio Batuen erreferentziazko dokumentuak' eman du argitara, eta Kultura-eskubideen aditu beregainaren lanaren jarraipena egin du.

Kultura-ondareari dagokionez, bereziki Guardiako eta Gesaltza Añanako paisaia kulturalen esparruan egin dugu lan handiena. Hainbat jardura antolatu ditu erakundeak paisaia berezi horien inguruan. Gesaltza Añanako ibarra Espainiako Behin-behineko Zerrendan sartzeko laguntza eta babesa eman du UNESCO Etxeak, eta, horri esker, UNESCOren aurrean Munduko Ondare izendatua izateko hautagai izan daiteke.

Hizkuntzak eta kultura-aniztasuna sustatzeko esparruan, berriz, Linguapaxeko ordezkari den aldetik, hizkuntza gutxiagotuen hiztun diren Europako gazteen Nazioarteko Topaketa babestu du UNESCO Etxeak, EHUren Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin batera.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

BAKE KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK



'Itxaropen Argia' horma-irudi. Anorbin kantoia, Gasteiz.

2011. urtean, UNESCO Etxeak leial eta tinko eutsi dio bere oinarrietako bati: Bakearen Kultura da humanismo berriaren funtsa. Gizarte egiaz demokratikoa, irekia, parte-hartezkoa, tolerantia eta bidezkoa eraikiko badugu, hau da, pertsona guztien giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa bere gain hartuko duen gizarte hezurmamituko badugu, lanean jarraitu behar dugu, botere publikoetan eragiten saiatzen eta herritarren erantzukizun kontzientea eta abixkimendua lortzen.

Hori guztia dela eta, bakeari eta bizikidetzari buruzko hainbat ekimenetan aktiboki parte hartu dugu euskal esparruan. Eusko Jaurlaritzako Bizikidetzaren Demokratikorako Planaren jarraipena egiteko Kontsulta Batzordeko kide gara, batzorde horren jardueretako batzuen koordinazioa hartu dugu geure gain eta Plan horren baitan bakearen kulturari eta giza eskubideei buruz eman diren prestakuntza-ekimenetan ere hartu dugu parte. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Elkartearen Foroaren lehendakariordetza hartu dugu. Halaber, gure herrian gaur egungo bake-prozesuaren bilakaeran garrantzi handiko hainbat prozesutan eman dugu gure iritzia eta egin dugu gure ekarria. Bultzada politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei buruzko lantaldean izan ginen Eusko Legebiltzarrean, eta bizikidetzarako proposamenen agiri bat aurkeztu genuen Kontsulta Batzordean.

2011. urtean, horrez gain, Bakerako Hezkuntzaren alde jarraitu dugu lanean EAEko ikastetxeetan. Hala, Euskal Herriko zortzi ikastetxek UNESCOra abixkitako eskolen sarean parte hartzeko prozesua koordinatu dugu eta horietatik bostek 'Monumentuei buruzko Nazioarteko Argazki Lehiaketan (EFIM)' parte hartzeko modua ere egin dugu. Europako Kontseiluaren ekimena izan da azken hori. Bi euskal ikaslek saria jaso zuten beren inguruko kultura-ondareari buruz ateratako argazkiengatik, eta gazteen nazioarteko topaketa batean hartu zuten parte Estraburgon.

Gasteizko Muralen Ibilbidearekin eta Garapen Bidean elkarrekin Gasteizko Anorbin kantoian eginiko 'Itxaropen Argia' horma-irudi koordinatu genuen. Horma-irudi honetan hiriko artista talde batek genero-indarkeriari buruzko beren gogoetak adierazi zituen. Horma-irudia aprobetxatuz, '1.325 Mujeres Tejiendo la Paz' (1.325 emakume bakea josten) liburua aurkeztu zen eta Sandra Santosen 'No sólo dos colores' (Ez dira soilik bi kolore) dokumentala estreinatu zen; horma-irudian parte hartu zuten pertsonen lekukotza bizia islatzen du dokumentalak.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

IRAUNKORTASUNA



'Garbitu dezagun mundua' ekimena. Lauaxeta ikastola, Arriandi parkeko garbiketaria. Amorebieta-Etxano, urriak 27.

Beste hainbat ekimenen artean, Nazio Batuen Ingurumenerako Programak (PNUMA) babestutako 'Garbitu dezagun mundua' nazioarteko ingurumen kanpaina koordinatu dugu EAEn, ingurumena garbitzea, berreskuratzea eta kontserbatzea helburutzat harturik. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Nazio Batuen Hamarraldian gure hondar alea izan da kanpainaren koordinazio-lan hori. Horrez gain, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dugu 'Etorbizun Iraunkorrerako Irakaskuntza eta Ikaskuntza' hezkuntzarako multimedia materiala.

Bat egin dugu, orobat, Nazio Batuen Ingurumenerako Programak (NBIP) bultzatutako 'Landa dezagun planetarako' nazioarteko kanpainarekin, eta bertako zuhaitzak landatu ditugu Urkiolako Natura Parkean, berariaz antolatutako jardunaldian. 2011 Basoen Nazioarteko Urtearen testuinguruan bultzatu du NBIPk aipatutako kanpaina.

Urdaibain ere lanean dihardugu hasitako bidean: hala, 'MaB Programa eta haren aplikazioa Urdaibaiko Biosfera Erreserban' prestakuntza-jardunaldia antolatu dugu, batetik. Eta 'Biosfera Erreserba - UNESCO Katedra eredua' argitalpena ere kaleratu dugu, bestetik.

Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazio-prozesuaren bileretako bat Bilbon izan zen iaz: 'Ebaluazio azpi-globalen nazioarteko bilera', hain zuzen. Mundu osoko 28 herrialdetako 70 adituk hartu zuten parte bilkuran. Bilera horren emaitzen berri jendeari emateko eta egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko jardunaldi irekia antolatu genuen, eta, horrez gain, 'Ekosistemen zerbitzuak eta giza ongizatea' lana eman genuen argitara.

Nabarmenezkoa da 'Iraunkortasunaren berri ematea. Kazetarietako gida' UNESCOren jatorrizko lanaren edizio berrikusi, eguneratu eta egokituaren argitalpena. Madrilen eta Bilbon arrakasta handiz aurkeztu zen gida.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

ORIENTAZIO-ZENTROA, KOMUNIKAZIOA ETA BEKAK

UNESCO Etxearen Orientazio, Komunikazio eta Beken Zentroak 1.800 erabiltzaile baino gehiago hartu zituen joan den urtean. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako ekimena da zentro hori. Kontsulta gehien xedea da jakitea zer aukera dauden NBEren sistematan lan egiteko eta praktika profesionalak gauzatzeko. Ugariak izan dira, halaber, NBE eta UNESCOren gaineko informazio eta dokumentazio eskaerak eta bilaketak, baita UNESCO Etxeak antolatutako jardueren inguruko kontsultak ere.

Eusko Jauriaritzaren beken programari esker, bederlatzi pertsona hasi dira lanean Asiako eta Amerikako sei herrialdeetako UNESCOren bulegoetan. Gainera, zazpi pertsonak beka berri dute bigarren urterako.

Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentu-funts zabala kudeatu dugu: 3.400 titulu, aldian behingo 35 argitalpen, material didaktikoa, ikus-entzunezkoak eta dokumentazio ofizial ugari.

Web-orrialdean 130.896 sarrera izan dira, 115 albiste argitaratu ditugu, albisteen zortzi buletin kaleratu ditugu eta banatu ditugu agerkarira harpidetuta dauden 500 pertsona baino gehiagoren artean eta informazioa emateko 30 e-mail bidali dizkiegu 2.000tik gora kontakturi. Facebook gizarte-sarean ere hedapen zabalagoa lortu dugu, jada 900 jarraitzaile baino gehiago ditugu, eta gure You Tubeko kanala ere indartu dugu.



Giza Eskubideen IV. Foroa. 'Hezkuntza bakea eraikitzeko estrategia gisa', Asunción Valderrama, Manuel Dios Diz eta Pilar Dosalarekin. Bilbo, azaroak 8.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

JARDUNALDIAK

1 UNESCO ETXeko 20. URTEURRENA

UNESCO Etxeak 20. urteurrena ospatu zuen ekainaren 9an bi jarduekin:

Goizeko ekitaldia UNESCOren beka-programari eskaini zitzaion. Bilboko Elkarbizitzaren Plazan Elkarrekin bizi dezagun mundua! Egin bat korronte handi honekin! izeneko ekintza 'artibista' egin zuten. elkarguneak, bizikidetzak, elkarriketa, lankidetzak, sareak eta gogoeta bultzatu zituen mundu justuago eta zintzoago baten alde. Ekintza honek bi isozaki Dorreak sinbolikoki lotu zituen mural handi batez.

Arratsaldean, mahai-ingurua egin zen 'Balioen krisia bada, aurki dezagun erantzuna. Hausnarketa, humanismo berri baterako' izenburupean. Daniel Inneraty, UNESCO Etxeko ohorezko bazkidea, eta Vincent M. Guzmán, Universitat Jaume I unibertsitateko bakerako filosofia izeneko UNESCO Katedrako ohorezko zuzendaria, izan ziren hizlariak.

2 OHOREZKO BAZKIDEEN Aholku BATZORDEAREN BIURTEKO 4. TOPAKETA

2011ko irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean, Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen 4. Topaketa dela bide, UNESCO Etxeak 'Humanismo berri baterantz' Adierazpena aurkeztu zuen Gasteizen.

Jardunaldi honetan Cultura de paz Fundazioko presidentea eta UNESCO Etxeko ohorezko bazkidea den Federico Mayor Zaragozari eta 1991tik 2004ra UNESCO Etxeko zuzendaria izan zen Paul Ortegari omenaldia egin zitzaion.

3 'EMAN MINUTU BAT BAKEAREN ALDE' LEHIAKETA

'Eman minutu bat ...-ren alde' bideo lehiaketan bake positiboaren kontzeptua izan da bigarren edizioaren ardatz eta mamia. Bake positiboak ez du soilik gerrarik gabeko egoera adierazten; areago, justizia soziala eta berdintasuna ditu oinarrian eta pertsonen eta herrien garapen duina bermatzen du eta haien eskubideak beteko direla ziurtatzen.

Kategoria nagusiko saria Iban Gonzalez gipuzkoarrak idatzi eta zuzendutako 'Nos-otr@as' lanak eskuratu du. 'Bake Kulturaren aldeko UNESCO Etxea Saria', beriz, Mikel Cenecorta basauriarrak jaso zuen 'Y nosotros sin saber...' lanarekin. 18 urtetik beherakoei zuzendutako 'Ekin eta Egin' kategorian, María Casanueva getxoztarra izan zen garaila '¿Con qué visión del mundo te quedas?' bideoarekin. Saritutako bideoak gure Youtube kanalean aurki ditzakezu.

4 UNESCO ETXeko ARABAKO EGOTZA INAUGURAZIOA

Ekainaren 10ean, UNESCO Etxeko Arabako egoitza inauguratu zen Gasteizen, Zapatari kaleko 8. zenbakian. Hasiere-ekitaldian UNESCO Etxeak eta Gasteizko Udalak lortutako hitzarmena sinatu zuten. Ekitaldian, Gasteizko Alkatea zen, Patxi Lazcoz-ek, eta UNESCOren Espainiako Batzordeko idazkari nagusiak, Consuelo Vázquezek, parte hartu zuten.

Ekitaldian Federico Mayor Zaragoza izan zen. Bakearen Kultura Fundazioko lehendakaria eta UNESCO Etxeko ohorezko bazkide denak 'Delito de Silencio' liburua aurkeztu zuen.



Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea · centro unesco euskal herria · centre unesco pays basque · unesco centre basque country



DATU EKONOMIKOAK

UNESCO Etxeak bere finantzei buruzko informazio gardena eta zorrotza ematen dio gizarteari. Gure kontuak LKS Auditores, S.L.k ikuskatzen ditu. Kontu-ikuskaritzaren txostenak www.unescoetxea.org helbidean daude.

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2011an laguntza eman baitigute bake-kulturaren eta giza eskubideen alde lanean jarraitzeko.



EL CORREO



Diario
Noticias de Alava

Gipuzkoa
Eres lo que lees



IRIZAR



vibo
Viajes



Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

Sarrerak guztira 2011	1.049.491,90	
Ekarpen pribatuak	155.723,50	%14,84
Bazkideak	10.464,00	%1,00
Erakunde pribatuak	109.700,25	%10,45
Beste Batzuk (dohaintzak, liburuen salmenta, balorizazioak...)	35.559,25	%3,39
Ekarpen publikoak	893.768,40	%85,16
Eusko Jaurlaritza (*)	575.087,96	%54,80
Aldundiak (BFA-AFA-GFA)	200.151,01	%19,07
Udalak (Bilbao, Getxo, Basauri, Gasteiz)	72.332,80	%6,90
Atzerri eta Lankidetzako Ministerioa	5.713,34	%0,54
UNESCO	10.000,00	%0,95
Beste batzuk (Lokalen lagapenaren amortizazioa)	30.483,29	%2,90

(*) Eusko Jaurlaritzan:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila %67; Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila %14; Justizia eta Herri Administrazio Saila %5; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila %6; Kultura Saila %6; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila %2

Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2011	1.049.611,39	
Orientazio-zentroa, komunikazioa eta beka	74.546,25	%7,10
UNESCO beka	201.998,78	%19,25
Ekonomia-, gizarte- eta kultura- eskubideen programa	15.529,78	%1,48
Iraunkortasuna Programa	214.618,48	%20,45
Garapenerako Kultura-proiektuak	210.466,31	%20,05
Garapenerako Ura programa	80.773,33	%7,70
Bake Kulturaren eta giza eskubideen aldeko programa	107.869,36	%10,28
Kudeaketa orokorra	143.809,10	%13,69

Egoera-balantzea 2011

AKTIBOA	2011	
Aktibo ez-zirkulatzailea	303.188,93	
Aktibo zirkulatzailea	932.321,71	
Aktiboa guztira	1.235.510,64	

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2011	
Fondo propioak	55.358,37	
Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak	1.025.468,44	
Pasibo zirkulatzailea	154.683,83	
Ondare garbia eta pasiboa guztira	1.235.510,64	

2011ko Auditoriaren txostena

